

Joan den astean, Elena Aizpururi, Haurreskolak Partzuergoko gerenteari, ezinbestean landu beharreko gai zerrenda eta bileren eskaera bidali genizkion. Idazki hori zuekin konpartitu genuen. Ondorengo gaiak dira zerrendatu genituenak:

- Uztaileko Haurreskolen egoerak eta hezitzaileen kontratazioak eta mugimenduak.
- 2022-23 ikasturte hasierako prozesuen proposamenak; desplazamenduak, esleipenak... hauek uztailean egiteko gelditu ginen.
- Lan erreformak sortutako kontratazio arazoaren negoziatzea. Lan hitzarmenaren 12.4. artikulua luzatzeko akordioaren negoziatzea.
- Ikasturtean zehar ordezkapen kontratuen banaketan sortutako arazoaren balizko konponbideak. Ordezkagunea martxan jartzeko urratsen planifikazioa.
- Kudeaketa langileen monografiaren eta araudien negoziatzea.
- Egonkortze prozesuaren negoziatzea.

Idazki honen erantzuna oraindik ez dugula jaso jakinarazi nahi dizuegu.

Hau guztia nahikoa izango ez balitz, enpresa orain arte langileei onartu dizkien baimenak eta opor egunak urratzen ari da. Langileek eskaera egiterakoan, enpresak alde bakarrez lan hitzarmenean jasota ez dauden eta negoziatu ez diren eskakizunak gehitzen dizkie. **STEILAS** sindikatua Pertsonal Zerbitzuaren arduradunarekin gaiak bideratzen saiatu da, baina oso gogor ari da jokatzeko. Negoziaziorako bidea etenda dagoenez, **STEILAS** sindikatuak bide juridikoa garatzea gomendatzen dizue.

Bestalde, uztaile oso gertu dago eta haurreskolen egoera zein izango den oraindik ez dakigu; ez guk, ez hezitzaileek. Urtero enpresari eskaera berdina egiten diogu: langileak, familiak eta zerbitzua duintasunez tratatu eta ekaina erdialdean behintzat, haurreskolaren antolamendua bermatu ahal izateko, egoera zehatza zein izango den haurreskolako langileei helaraztea.

Honetaz gain, Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen baremazioko behin betiko zerrendak akatsez beteta argitaratu dira, dokumentuak falta ziren eta honek nahasmen eta urduritasun handia sortu du hautagaien artean. **STEILAS** sindikatuak, honelako prozesuaren aurrean enpresari seriotasunez, zuzentasunez eta gardentasunez jokatzeko eskatzen dio.

Bukatzeko, ikasturte amaiera honetan enpresari arduraz jokatzeko eta alde sozialarekin hartu-emanak bermatzeko eskatzen diogu.

